


6 mantangorri



CO

AZOKA

LIBURUA

Izenburua: ‘Mikro-ipuinak 2012’. **Edukia:**

2012. urteko Mikro-ipuin lehiaketako hamabi lan sarituak eta Maialen Lujanbioren bat. **Orrialde kopurua:** 32 orrialde. **Argitaratzzaileak:**

Euskara Kultur Elkargoa eta Pamiela.



Malen Eugi

EUSKARA KULTUR ELKARGOKO KIDEA

«Liburuan dauden istorioak txikiak izan arren, altxor handiak dira»

Nafarroako ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko eta irakurtzoko eta idazteko zaletasuna zabaltzeko asmoz hasi ziren Mikro-ipuin lehiaketa antolatzen Euskara Kultur Elkargoa eta Pamiela argitaletxea, 2005ean. Ikasleek egindako lanek zabalkunde handiagoa izan zezaten, saritako lanak bildu eta mikro liburu batean argitaratzen hasi ziren. Hauxe da liburua kaleratu duten bosgarren urtea.

Zer topatuko du irakurleak liburuan?

2005. urtetik, Mikro-ipuin lehiaketa antolatzen dute Euskal Kultur Elkargoak eta Pamiela argitaletxeak Nafarroan ikasten duten Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bi-garren Hezkuntzako ikasleentzat. VII. Mikro-ipuin lehiaketara aurkeztu ziren lanen artetik saria jaso zuen ipuinak biltzen dira mikro-libruan. Denera, hamahiru testu.

Liburuan ageri diren lan guztiak sarituak dira, ezta?

Bai, hala da. 2012ko Mikro-ipuinen VII. lehiaketan saria edo aipamen berezia jaso zuten lanak dira liburuan biltzen direnak. Bere garaian, beraz, saria jaso zuten guztiekin.

Bada saritu gabeko lan bat.

Bai, hala da. Ikasleen mikro-ipuinen artean, Maialen Lujanbio bertsolariak libururako idatzi zuen istorio



VII. Mikro-ipuin lehiaketan saria eskuratu zuten ikasleak, Maialen Lujanbio bertsolariaren alboan.

laburra aurki daiteke: *Denbora galdu*. Ikasleek sortutako hamabi istorioez gain, beraz, Lujanbioren istorioa ere badakar liburutxoak.

Nolako istorioak dira?


Istorio guztiak laburrik dira. Izan ere, horixe da lehiaketa honetara aurkezten diren lanek bete behar duten baldintzetako bat: ehun hitzko istorioak izan behar dute. Horrez gain, euskaraz idatziak egon behar dira guztiak, noski.

Gainerakoan, askotariko istorioak biltzen dira liburutxoan. Ikasleen adinaren arabera, gaiak aldatu egiten dira, nabarmen. Hala, Lehen Hezkuntzako ikasleek sortutako istorioak umoretsuagoak dira, eta, normalean, egunerokotasunarekin

lotura estua izaten dute askok; dena den, badira surrealismo pitit bat duten istorioak ere. Derrigorrezko Bi-garren Hezkuntzako idazlanen kasuan, berriz, seriotsun handiagoz lantzen dira gaiak. Ipuin horiek ederki islatzen dituzte gazteen bizipenak, emozioak, bel-durrak eta, oro har, sentimenduak.

Mikro-ipuinen liburua izanik, mikro liburua izango da, noski?

Mikro liburua da, bai, tamainaren aldetik txikia delako. Bere barruan dauden istorioak txikiak izan arren, altxor handiak dira, ez baita batere erraza pentsamendu eta sentimenduak hitz gutxitan azalera ratzea. Ikusteko, egin proba!



LIBURUA 'Ostiral'

Tribuko buruzagjaren agin-duak bete ez zituela eta, epaitu egin zuten liburuko protagonista. Epaia: hurrengo ilbetean, jainkoen eta jainkosentzako eskaintza izatera kondenatu zuten. Irutsi zen ilbetearen eguna. Oinak eta eskuak lotu zizkioten, eta alboko uhartera eraman zuten kanhoa batean. Aldarean etzanda jarri, eta bularra olioiz igurtzi zioten sakrifiziorako. Erritua prestatzen ari zirela, ordea, sokak askatu eta ihes egitea lortu zuen protagonistak.

**Santiago Freire
Dani Padron**

Argitaletxea: **Sushi books**



LIBURUA 'Izotz zuloa'

Marko pinguinoa pozez txoratzen zegoen, anaia txikia jaio behar zitzaiola eta. Jaiotzen zenerako zer egin pentsatzen hasia zen: aintzira izoztura joango ziren patinatzera; lera-rekin lasterketak egingo zituzten; itsas lehoiekin bainatuko ziren... Azkenean, irutsi zen egun handia: arrautza pitzatu eta oskoletik irten zen Lukas anaia txikia. Markok, baina, ezusteko handia jaso zuen: gauzak ez ziren hark pentsatu bezalakoak.

**Olaz Bravo
Ainara Azpiazu**

Argitaletxea: **Erein**